



**BAT-EGITE PROIEKTU ERKIDEA**

*Hauen artean:*

***Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U.***

*(sozietate xurgatzaile gisa)*

eta

***Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. eta  
Eitbnet, S.A.U.***

*(xurgatutako sozietate gisa)*

Bilbo / Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainak 19

## 1. SARRERA


### 1.1. EiTb Taldearen egitura

Euskal Autonomia Erkidegoak komunikabide sozialen arloan dauzkan eskumenak garatzeko, Eusko Legebiltzarrak “Euskal Irrati-Telebista” Herri-Erakundea sortzen duen Legea (maiatzaren 20ko 5/1982 Legea) onartu zuen, euskal herritarrentzat komunikabide publikoa, soziala eta kalitatekoa abian jartzeko abiapuntu gisa.

Adierazitako arauak 37. artikuluan xedatzen duenez, alabaina, irradi-difusioko eta telebistako zerbitzu publikoa horretarako sortuko diren sozietate publikoen bidez kudeatuko da.

Xedapen horren babesean, Eusko Jaurlaritzak, uztailaren 19ko 157/1982 Dekretuaren, uztailaren 19ko 158/1982 Dekretuaren, martxoaren 20ko 77/1984 Dekretuaren eta maiatzaren 6ko 100/2003 Dekretuaren bidez, Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U., Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A.U. sozietate publikoak sortzeko baimena eman zuen, telebista, irradi eta Internet zerbitzuak kudeatzeko, hurrenez hurren.

Gaur egun, Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca erakunde publikoak eta adierazitako lau sozietateek osatzen dute EiTb Taldea:



### 1.2. Integrazio-eragiketa aholkatzen duten arrazoiak

Azken hamarkada honetan, EiTb Taldea etengabeko transformazio teknologiko eta digitalean murgilduta egon da, gizartearen eskueran dauden zerbitzu, bitarteko, euskarri eta gailu berrietara egokitzeko, kalitateko komunikazio sozialeko zerbitzu publiko baten aldeko apustu irmoa indarrean iraunarazi duen aldi berean.

Begien bistan dugun transformazio teknologiko eta digitalaren dimentsioa, irispidea eta intentsitatea, hasieran aurreikus zitekeena baino handiagoa, eta ingurune global eta digital berrira egokitu beharra eta horretara bideratutako baliabide materialak



optimizatzeko premia kontuan harturik, EiTb Taldeak gogoeta estrategikoa egin behar izan du bere sozietate-egitura eta administrazio-eredua arrazionalizatzeko aukeraren inguruan, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeari begira, betiere aplikatzekoa den araudiak ezarritako mugen barruan.

Gogoeta horren emaitza, Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak erabaki du arestian adierazitako sozietate-egitura sinplifikatzea, lau sozietate publiko operatiboak erakunde publikoaren mendeko sozietate publiko bakar batean integra daitezten, baina euskal sektore publikoko erakunde publiko instrumentalen kopurua murrizteak zalantzan jarri gabe gaur egun EiTb Taldeak ematen dituen zerbitzuetako (irratia, telebista eta Internet) edo garatzen dituen jardueretako bakar baten jarraitutasuna edo kalitatea.

### 1.3. Integrazio-eragiketaren egitura

Merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzko Legearen (apirilaren 3ko 3/2009 Legea) (**“Egitura Aldaketei buruzko Legea”** edo **“EAL”**) 30. eta 31. artikuluetan eta bat datozenetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, behean sinatzen duenak, Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U. sozietate publikoaren (**“Sozietate Xurgatzailea”**) eta Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A.U. sozietate publikoen (guztiak batera **“Xurgatutako Sozietateak”**) administratzaile bakarra den aldetik, bat-egite proiektu erkide hau (**“Bat-egite Proiektua”**) formulatu, idatzi eta izenpetzen du.

Integrazioa gauzatzeko hautatu den egitura juridikoa xurgatze bidezko bat-egitea da, EALen 22, 23.2 eta 52.1 artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.


Zehazki, proiektatutako bat-egitea Xurgatutako Sozietateak xurgatze bidez Sozietate Xurgatzailean batzean datza. Horrek berekin ekarriko du Xurgatutako Sozietateen likidaziorik gabeko desegitea, eta gero azkentzea, eta haien ondare guztiak Sozietate Xurgatzaileari batuan eskualdatzea, oinordetza unibertsalez. Sozietate Xurgatzaileak eskuratuko ditu, batuan eta oinordetza unibertsalez, Xurgatutako Sozietateen eskubide eta eginbide guztiak.

Bat-egitearen prozedura inguruabar honek zehazten du: bat-egite «bikoitz» deritzo, bat-egitean esku hartzen duten lau sozietateak akziodun bakar berak zuzenean osoki partaidetuta baitaude. Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca erakunde publikoa da akziodun bakarra.

Aurrekoa ikusirik, bat-egite honi EALen 49.1 eta 52.1 artikuluetan ezarritako bat-egite berezien araubidea aplikatu daki.

Ondorioz, Bat-egite Proiektuak ez ditu jasotzen EALen 31. artikuluko 2., 6., 9. eta 10. aipamenak, ez baitira aplikatzekoak. Bestalde, ez da beharrezkoa izango administratzaileek eta adituek Bat-egite Proiektuari buruzko txostenak egitea, ez Sozietate Xurgatzailearen kapital-gehikuntza egitea, ezta Xurgatutako Sozietateen akziodun bakarrak bat-egitea onartzea ere.

Ondoren grafikoki azaltzen da integrazio-eragiketaren egitura:



## **2. BAT-EGITEAN PARTE HARTZEN DUTEN SOZIJETATEEN IDENTIFIKAZIOA (EAL-EN 31.1 ARTIKULUA)**

### **2.1. Sozietate Xurgatzailea**

#### **2.1.1. Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U.**

Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U. egoitza soziala Bilbon (Basurtuko Kaputxinoen kalea 2) duen sozietate anonimoa da, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua (67 liburukia, 209 folioa, BI-5378 orria) eta A-48139232 IFZ duena.

### **2.2. Xurgatutako Sozietateak**

#### **2.2.1. Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U.**

Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U. egoitza soziala Bilbon (Basurtuko Kaputxinoen kalea 2) duen sozietate anonimoa da, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua (597 liburukia, 42 folioa, BI-4778 orria) eta A-48139224 IFZ duena.

#### **2.2.2. Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U.**

Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. egoitza soziala Vitoria-Gasteizen (Domingo Martinez de Aragon kalea 5 eta 7) duen sozietate anonimoa da, Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatua (674 liburukia, 1 folioa, VI-4089 orria) eta A-01026699 IFZ duena.



### 2.2.3. Eitbnet, S.A.U.

Eitbnet, S.A.U. egoitza soziala Bilbon (Basurtuko Kaputxinoen kalea 2) duen sozietate anonimoa da, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua (4356 liburukia, 107 folioa, BI-38183 orria) eta A-95267936 IFZ duena.

### 3. BAT-EGITE BALANTZEAK

Bat-egite balantzetat hartuko dira, EALen 36.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U., Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A.U. sozietateek 2019ko abenduaren 31n itxitako balantzeak, haien urteko kontuen parte direnak.

Urteko kontu horiek, bat-egite balantzetat hartzen den balantzea jasotzen dutenak, 2020ko martxoaren 31n formulatu dira, sozietate guztiek erkide duten kontu-auditoreak behar bezala egiaztatu ditu eta akziodun bakarrak 2020ko ekainaren 1ean onartu ditu.

### 4. ZER ERAGIN IZANGO DUEN BAT-EGITEAK INDUSTRIA-EKARPENETAN EDO PRESTAZIO OSAGARRIETAN, ETA ZER KONPENTSAZIO EMANGO DIREN, HALA BADAGOKIO (EAL-EN 31.3 ARTIKULUA)

Ez Sozietate Xurgatzailean ez Xurgatutako Sozietateetan ez dago industria-ekarpenik edo prestazio osagarririk. Beraz, bat-egiteak ez du inongo eraginik alde horretatik, eta ez da inongo konpentsaziorik eman beharko.

### 5. ESKUBIDE BEREZIAK (EAL-EN 31.4 ARTIKULUA)

Ez dago mota berezietako akzioen edo eskubide berezien titularrik edo akzioez besteko edukizailerik. Hori dela eta, ez da emango eskubiderik eta ez da eskainiko inolako aukerarik.

### 6. ADMINISTRATZAILEEI ETA ADITU INDEPENDENTEEI ESLEITUTAKO ABANTAILAK (EAL-EN 31.5 ARTIKULUA)

Xurgatutako Sozietateen edo Sozietate Xurgatzailearen administratzaile bakarrari ez zaio inolako abantailarik esleituko Sozietate Xurgatzailean.

Bestalde, bat-egite bikoitza denez eta aditu independentearen Bat-egite Proiektuari buruzko txostena egin beharrik ez dagoenez, ez da aintzat hartzen hari abantailak ematerik.

**7. BAT-EGITEAREN KONTABILITATE-ONDORIOETARAKO DATA (EAL-EN 31.7 ARTIKULUA)**

Kontabilitate Plan Orokorra (irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak aldatua) onartzen duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren 21. erregistro- eta balorazio-arauan (*taldeko enpresen arteko eragiketak*) ezarritakoaren arabera, EALen 31.7 artikulua igorpenez, Xurgatutako Sozietateen eragiketak, kontabilitate-ondorioetarako, Sozietate Xurgatzaileak egindakotzat joko diren data **2020ko urtarrilaren 1a** izango da.

**8. ESTATUTUEN ALDAKETAK (EAL-EN 31.8 ARTIKULUA)**

Bat-egitearen ondorioz, Sozietate Xurgatzailearen estatutuak aldatuko dira.

Aldaketa nagusiak izendapen sozialari, xede sozialari, administratzaile bakarrari, Aholku Batzordea ezabatzeari, administratzaile bakarraren eskumen eta ahalmenei buruzko artikulua ezabatzeari eta zuzendariaren figura sartzeari buruzkoak dira.

Gainerako aldaketak munta txikikoak dira (batez ere erreferentzia arauemaileak indarrean dagoen aruari egokitzeko, artikulua guztietan terminologia-aldaketak egitea, testu osoari argitasun, batasun eta kohesio handiagoa emateko, eta testua genero-arloan hizkera inklusiboagoa erabilita egokitzea).

Sozietate Xurgatzailearen estatutuen ale bat eranskin gisa gehitu da.

**9. BAT-EGITEAK IZAN DITZAKEEN ONDORIOAK (EAL-EN 31.11 ARTIKULUA)**

**9.1. Bat-egiteak enpleguan izan ditzakeen ondorioak**

Bat-egiteak ez du inongo eraginik izango enpleguan, Xurgatutako Sozietateetako langileak Sozietate Xurgatzaileko langile izango baitira eta bat-egitea onartzen den datan dauden baldintzak errespetatuko baitira, Langileen Estatutuaren 44. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Ohartarazten da, halaber, bat-egitean parte hartzen duten sozietateek esku-hartzen duten sozietateetako langileen legezko ordezkariari informazioa emateko eta, hala badagokio, kontsultatzeko eginbideak beteko dituztela, merkataritza- eta lan-araudian xedatutakoaren arabera.

**9.2. Administrazio-organoetan izan dezakeen genero-inpaktua**

Ez da aurreikusten bat-egitearen ondorioz aldaketak izango direnik bat-egitearen ondoriozko erakundearen administrazio-organoaren egituran (administratzaile bakarra



izango da beti, "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundea sortzen duen Legearen (maiatzaren 20ko 5/1982 Legea) 40.1 artikulua araberaz). Horrenbestez, ez da inongo aldaketarik izango genero-banaketaren ikuspuntutik.

### **9.3. Erantzukizun sozial korporatiboan izan dezakeen eragina**

Proiektatutako bat-egiteak ez du inongo inpakturik izango enpresaren erantzukizun sozialean.

### **9.4. Bat-egiteak hartzekodunen gainean izan dezakeen eragina**

Ez da aurreikusten bat-egitean parte hartzen duten sozietateen hartzekodunen interesak babesteko neurri berezirik, indarreko legeriak ezarritako babes-neurriak ezertan galarazi gabe.

Halaber, bat-egitean parte hartzen duten sozietateen hartzekodun guztien eskubideak Egitura Aldaketen Legean ezarritakoaren arabera dagokien aurkakotza-eskubideak legez babesten dituela ulertuko da.

## **10. ZERGA-ARAUBIDEA**

Proiektatutako bat-egitea Bizkaiko lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren eta Arabako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako bat-egiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen, balore-trukeen, aktibo eta pasibo osoaren lagapenen, eta Europako sozietate baten edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen araubide berezian sartzen da, horietan eskatutako baldintzak betetzen ditu-eta.

Ondorio horretarako, eta aipatutako araudian eta horren erregelamenduzko garapenean aurreikusitakoari jarraikiz, Sozietate Xurgatzaileak dagokion komunikazioa aurkeztuko die administrazio eskudunei, eta zerga-araubide berezi horretan sartzen dela jakinaraziko die.

## **11. BALDINTZA ETENGARRIA**

Bat-egitea gauzatzeko eta eraginkorra izateko, ezinbestekoa izango da Eusko Jaurlaritzak dekretu bat eman eta honako hauek baimentzea: (i) Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A.U. sozietate publikoak azkentzea, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 20.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta (ii) Euskal Telebista-Telebista Vasca, S.A.U. sozietatearen estatutuak aldatzea.

Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta edo Zuzenbideak onartutako beste edozein modutara frogatuko da baldintza hori bete izana.

\* \* \*

Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U., Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A.U. sozietateen administratzaile bakarrak idatzi eta izenpetu du Bat-egite Proiektu hau.

\* \* \*

Bilbon / Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 19an



Maite Iturbe Mendialdua andrea





**ERANSKINA**  
**«EITB MEDIA, S.A.U.» SOZIETATE ANONIMO PUBLIKOAREN**  
**ESTATUTUAK**

**I. TITULUA**

**ERATZEA, IZENA, ARAUBIDE JURIDIKOA, EGOITZA, XEDEA ETA  
IRAUPENA**

**1. artikulua.- Eratzea**

1.- EITB Media, S.A.U. izenarekin, forma anonimoa duen sozietatea eratzen da, merkataritza-sozietateen kategoriakoa eta berezko nortasun juridikoa duena.

2.- Sozietatea honako hauek araupetuko dute: (i) "Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A." akziokako Herri-Baltzua sortarazteari buruzko uztailaren 19ko 157/1982 Dekretuak, eta horren aldaketek, (ii) "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundea sortzen duen Legeak (maiatzaren 20ko 5/1982 Legea), eta (iii) Kapital Sozietateei buruzko Legeak eta aplikatzekoa den gainerako araudiak.

**2. artikulua.- Egoitza**

Egoitza soziala Bilboko emanaldi-zentroan finkatzen da (Basurtuko Kaputxinoen kalea 2). Hor izango du legezko ordezkariak sozietateak. Batzar Nagusiak agentziak, delegazioak, ordezkariak edo bulegoak ezar ditzake Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan nahiz bertatik kanpo, baita egoitza soziala aldatu ere, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan.

**3. artikulua.- Xede soziala**

Honako hau da xede soziala:

- a) Irudiak eta soinuak ekoiztea eta aldi berean transmititzea uhinen bitartez edo kableen bidez jendeari oro har, zuzenean zein zeharka, informazioa, kultura, artea, merkataritza, jolasa eta publizitatea helburu izanik, eta, orobat, hezkuntza-sistemarekin lankidetzan jarduteko eta euskal kultura sustatu eta ezagutzera emateko hedabide gisa, euskararen sustapena eta garapena bereziki aintzat hartuta.
- b) Edizio grafikoa, musika-edizioa eta ekoizpen diskografikoa eta bideografikoa.
- c) Informazioaren gizarterako edukiak ekoiztea, erreproduzitzea, argitaratzea, erostea, saltzea, komertzialki ustiatzea eta banatzea, batez ere komunikazio- eta zerbitzu-euskarri berrietarako eduki interaktiboak, multimedia eta sarekoak.
- d) Gaur egun telebista digitalak, teletestuak, Internetek eta telefonia mugikorrek ordezkatzten dituzten euskarri berri horietan eta etorkizunean garapen teknologikoak ahalbidetuko dituenetan komunikazio- eta zerbitzu-kanalak abian jartzea eta mantentzea.

- e) Zentro teknologikoekin lankidetzan jardutea esparru honetako berrikuntza-proiektuetan.
- f) Ikus-entzunezkoen euskal sektorea garatzea eta sektorea beste merkatu batzuetara irekitzea helburu duten izaera estrategikoko enpresa-proiektuetan eta aliantzetan parte hartzea.

Xede sozialetik kanpo geratzen dira legeak eskatutakoaren arabera sozietate honek betetzeko modukoak ez diren baldintza bereziak dituzten jarduera guztiak.

#### 3 bis artikulua.- Web-orria

Sozietatearen web-orriak izen hau edukiko du: <http://www.eitb.eus>.

#### 4. artikulua.- Iraupena

Sozietateak iraupen mugagabea izango du eta eratzen den egunean bertan ekingo die bere jardueri.

## **II. TITULUA**

### **KAPITALA ETA BALIABIDEAK**

#### 5. artikulua.- Kapital soziala

Kapital soziala berrogeita hemezortzi milioi seihun eta laurogeita hamabost mila hirurehun eta hogeita hamar euro eta hirurogeita hemezortzi zentimokoa da (58.695.330,78 €), 9.766.278 akzio izendunek ordezkaturak. Akzio bakoitzaren balio izendatua 6,01 euro da eta 1 eta 9.766.278 artean zenbakituta daude (biak barne). Kapitala oso-osorik harpidetu eta ordainduta dago eta Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca erakunde publikoarena da.

#### 6. artikulua.- Baliabideak

Sozietatea "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundea sortzen duen Legearen (maiatzaren 20ko 5/1982 Legea) 45. artikuluan aurreikusitako moduan finantzaturak da.

## **III. TITULUA**

### **GOBERNU-ORGANOAK**

#### 7. artikulua.- Gobernu-organoak

Sozietatearen gobernu eta administrazioa, Kapital Sozietateei buruzko Legeak ezartzen dituen eskudantziekin, maiatzaren 20ko 5/1982 Legean eta estatutu hauetan xedatutakoaren osagarri gisa aplikatzekoa den heinean, honako organo hauen eskuetan egongo da:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Administratzaile bakarra.



**I. ATALA**  
**AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA**

**8. artikulua. Izaera eta funtzioak**

Batzar Nagusiari, sozietatearen organo gorena denez, Kapital Sozietateei buruzko Legeak agintzen dizkion ahalmenak dagozkie, baldin eta maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen eta estatutu hauen arabera ahalmen horiek beste organoren bati esleitu ez bazaizkie.

**II. ATALA**  
**ADMINISTRATZAILE BAKARRA**

**9. artikulua.- Administratzaile bakarra**

- a) Sozietatea administratzaile bakar batek administratu eta ordezkatu du.
- b) Karguak lau urteko iraupena izango du eta beste horrenbesteko aldien arabera luzatu ahal izango da.
- c) Maiatzaren 20ko 5/1982 Legean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arazten dituen Legean (ekainaren 26ko 1/2014 Legea) horretarako aurreikusitako bateraezintasunen mende egongo da kargua, baita Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca erakunde publikoarekin duen loturaren ondorioz dagozkion mende ere.

**III. ATALA**  
**ZUZENDARIA**

**10. artikulua.- Zuzendaria**

Batzar Nagusiak zuzendari bat izenda dezake. Kargu horrek, hala badagokio, berariaz eskuordetzen dizkieten eskumenak eta ahalmenak izango ditu. Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arazten dituen Legearen (ekainaren 26ko 1/2014 Legea) mende dago kargua.

**IV. ATALA**  
**EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA**

**11. artikulua.- Ekitaldi sozialaren iraupena**

Ekitaldi soziala urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

**12. artikulua.- Araudia**

Sozietateak, Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate anonimo publikoa denez, aplikatzekoa zaion araudi berezira egokituko du bere ekonomia- eta finantza-araubidea,

eta, horrek aurreikusten ez duen guztian, Kapital Sozietateei buruzko Legera eta hura osatzen duten gainerako xedapenetara.

### 13. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-dokumentuak

Sozietateari aplikatzekoa den legeria bereziak nahitaez idaztekozat jotzen dituen ekonomia- eta kontabilitate-dokumentuez gain, sozietateak urte bakoitzeko abenduaren 31ko erreferentziarekin eta ekitaldi sozialaren itxieratik hasi eta hiru hilabeteko epean, balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta eragiketa sozialen azalpen-memoria formalizatuko ditu.


### 14. artikulua.- Kontu-auditoria

Kontuen auditoriari eta kontrolari dagokienez bereziki aplikatzekoa den araudia ezertan galarazi gabe, kontuen auditoria erakunde edo espezialista independenteen bidez egitea erabaki dezake Batzar Nagusiak.

### 15. artikulua.- Zehaztapena

Zuzenbide pribatuko pertsonen aplikatzekoak diren jurisdikzio-arau beren mende egongo da sozietatea, alde batera utzi gabe sozietatearen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen izaeraren arabera bidezkoak diren espezialitateak eta bere kapitalean soil-soilik Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzearen ondorioz jurisdikzio bereziak aztertzekoa den ekonomia- eta kontabilitate-jarduera fiskalizatzea eta epaitzea.

\* \* \*



YO, **ALFONSO BATALLA DE ANTONIO**, NOTARIO DEL ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL DEL PAÍS VASCO, CON RESIDENCIA EN ESTA VILLA DE BILBAO, DOY FE:

De que la firma y rúbricas puestas en el documento que antecede, junto con un anexo, todo ello extendido en seis folios escritos por las dos caras, de **DOÑA MARIA TERESA ITURBE MENDIALDUA**, con D.N.I. número 15.361154-Y, las considero legítimas por haberlas cotejado con otras de la misma titular obrantes en mi protocolo. Y sin que mi intervención se extienda al contenido del documento ni le atribuya efecto público alguno, lo firmo, rubrico y sello.

Dicha legitimación ha sido extendida en el presente folio de los Colegios Notariales de España, serie UY, número 1250115.

En Bilbao, a 19 de junio de 2020

Asiento número 677 del Libro Indicador

